

El Estado contra Pablo Ibar

Pablo Ibar edo Sisiforen mito eguneratua

IRENE ELORZA

El Estado contra Pablo Ibar film luzea izateko jaio zen, orain sei urte. Denboraren eta proiektuaren bultzatzaileen adorea poderioz, telesail bihurtuta dator Zinemaldira. Olmo Figueredok zuzendu du sei orduko telesaila: "Hasierako kemena mantentzea izan da erronkarik handiena; proiektua hasierako gogo, zorrotasun eta ahalegin berarekin hartzea"

Figueredo eta bere lantaldea Pablo Ibarren 25 urteko odisea judiziala detaile guztiekin kontatzen saiatu dira. "Hau ez da Pablo Ibarri buruzko telesaila, istorio honetan harrapatuta dagoen jendeari buruzkoa baizik: Pablaren familia, biktimen familiak, defentsak, fiskaltza...", adierazi du zuzendari eta ekoizle sevillarrak.

Telesaila osatzeko behar izan duten sei urteko ibilbidean, 200 ordu grabatu eta 53 pertsona elkarrizketatu dituzte. Figueredok argitu duenez, ehundik gora elkarrizketa egin dituzte eta azkena Pablo Ibarri egindakoa izan da: "Bera protagonista ez zeneko ikuspuntua interesatzen zitzaidan, bere portaeraren lekuko izatea". Lantaldea errespetu osoz gerturatu da familiarengana eta haien eskuabaltasuna azpimarratu du egileak.



Kandido Ibar, Pablaren aita, eta Omo Figueredo zuzendaria, atzoko prentsaurrekoan.

GARI GARAIALDE

"Euli mandoa bezalakoa izan naiz, beti familiaren ondoan, euren bizitzak jarraitzen", esan du. Honenbestez, ikuslea epaimahaikide bat gehiago bihurtu nahi zuen, norberak bere ondorioak atera zitzaizkan.

Epaiketena berezko genero bat da eta *El Estado contra Pablo Ibar* genero horretan egokitzen da be-

te-beteen. Baina hori baino gehiago ere bada, beldurra, melodrama eta hainbat genero ukitzen baitira sei ataletan zehar. "Asko dago gidotik, baina, tamalez, gertatutakoa errealitate bat da, eta, aldi berean, surrealista da", adierazi du zinemagileak; "surrealismo horrek eraman du telesaila genero ezberdinetatik

igarotzera". Denbora bera dokumentalaren parte bat da: "Ez dugu gauza homogeen bat egin nahi izan zeren eta 26 urtetan asko aldatu baita dena", dio Figueredok.

Lan independentea izan da hau, atzean inongo plataformarik izan ez duena. "Amesgaiztoa izan da hori ni naizen ekoizlearentzat, baina ni

naizen zuzendariarentzat askatasun osoa izan da", aitortu du zinemagileak. Telesaila ingelesez errotatuta dago %95ean eta horrek aukera asko emango omen dio beste herrialdeetan interesa pizteko. Gaur gaurkoz, ETBk eta CanalSur-ek erosi dute eta Espainia osoan ikusi ahal izango da.

Etengabeko borroka

Pablaren aita Kandidoren kemena azpimarratu nahi izan du Omo Figueredok telesailaren aurkezpenean: "Familia osoa eta herrialde oso bat atzean dituela daki Kandidok, horregatik altzatzen da erortzen den bakoitzean", aipatu du egileak, "nik uste dut kirolari profesionala izateak eman dion espiritu lehiakor garatu horretatik datorkiola".

Semeari buruz galdetuta, zera adierazi du Kandidok: "Jende pila-keta handia duen kartzela batean dago gaur egun eta oso beldurtuta dago Covid-arengatik". Familia animo handiz dagoela eta borrokan jarraitzen duela gaineratu du.

Pablo Ibar Juicio Justo Epaiketa Justua elkarteko bozeramaile Andrés Krakenbergerrek esan duenez, "oraindik, justizia letra txikiz izan dute; orain Justizia letra larritz bilatzen dugu".

f t

: Zinemaldiko informazio guztia
www.naiz.eus
naiz: